

GETXOKO 2021erako PROGRAMAZIO ARTISTIKOKO DEIALDIA

Getxoko Kultur Etxeak Getxoko 2021erako Programazio Proposamenen Deialdia aurkezten du, xedetzat duena getxotarrek sustatutako edo egindako obra eta proiektu artistikoak erakustea bultzatu eta ahalbidetzea. Hori guztia, honako prozedura eta irizpide hauei jarraikiz:

1. Proposamenak bidali ahal izango dituzte egoitza fiskala Getxon daukaten eta getxotarrek ekoiztu edo kontzeptualizatutako, idatzitako edo diseinatutako obra artistikoak landu, ekoiztu edo banatzen dituzten pertsona juridikoek. Getxotarrek parte hartu edo kolaboratzen duten obrak ere izan ahalko dira. Antzezlanak, koreografiak, zinema proiektzioak, edonolako musika kontzertuak, bertsolarien emanaldiak, haurren obrak, umore ikuskizunak, errezitaldiak edo antzekoak izan ahalko dira.
2. Nahi beste proposamen bidali ahal izango dira, baina Kultur Etxeak ez du bat baino gehiago hautatuko eskatzaile bakoitzeko. Proposamenak edozein hizkuntzatan egon ahal izango dira, eta gutxienez ordubeteko (1) iraupena izan beharko dute.
3. Proposamenak euskarri digitalean aurkeztuko dira 2020ko abenduaren 1etik 2021eko urtarrilaren 10era arte, ahalik eta informazio gehien jaso behar duen txosten batean: aurkezpen memoria; fitxa teknikoa; erakusteko aurrekontua; proposamenari lotutako CVak; material grafikoa, soinuarekin lotua eta ikus-entzunezkoa (formatuak: AVI, MOV, MPEG, FLV), halakorik balu, besteak beste. Gainera, behar-beharrezko informazio gisa txertatuko da inskripzio formularioan eskatutakoa (I. eranskinean dator). Bestalde, erakunde eskatzaileak aurreko beste ikuskizun batzuei buruzko dokumentazioarekin lagundu ahal izango du proposamena.
4. Proposamenak programatu ahal izango diren erakusketa espazioak soilik honako hauek izango dira:
 - a) Muxikebarri: Ereaga aretoa, Arrigunaga aretoa eta Areeta aretoa.
 - b) RKE: Ekitaldi aretoa.II. eranskinean aurki daitezke aretoetako fitxa teknikoak, eskuragarri dauden planoekin, ekipamenduarekin eta inbentarioarekin. Proposamena espazio bakar baterako eskatu behar izango da, nahiz eta ez den loteslea izango.
5. Proposamena erakusteko aurrekontuak eskaerarako aurreikusitako aretoaren fitxa teknikoan azaltzen ez diren material guztien alokairua hartu beharko du barne (II. eranskineko dokumentazioaren arabera), eta horiek erakunde eskatzailearen kontura izango dira.

Egile-eskubideak ordaintzeko aurrekontua eskatutako aretoko leku kopuruaren arabera adierazi beharko da, behar bezala xehakaturik. Dena den, proposamena aukeratzekotan Kultur Etxeak ordainduko du zuzenean.

Kultur Etxeak zuzenean ordainduko ditu honako hauei lotutako kostuak: argiztapena, soinua, ikus-entzunezkoak, makineria eszenikoa, zamalanak, artistei emandako arreta, errejidoretza, publiko antolatze langileak, sarrerak, leihatilak, jantzitegi zerbitzua, segurtasuna, garbiketa eta anbulantzia zerbitzua. Oinarri hauetako 6. puntuan sartzen ez den edozein kostu erakunde eskatzaileak ordaindu beharko du.

6. Proposamen guztien prezio publikoa Kultur Etxeak ezarriko du, eta inola ere ezingo da izan 3 euro baino baxuagoa. Hala ere, Tokiko ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Araua (abenduaren 31ko BAO) aplikatuz ezarriko da prezioa.

Hautatutako erakunde eskatzaileak 6 gonbidapen izango ditu ikuskizunerako. Ikuskizuna hasi baino 72 ordu lehenago gonbidapenak eskatzen ez badira, Kultur Etxeak erabili ahal izango ditu.

7. Erakusteko proposatutako datak argi eta garbi adierazi beharko dira inskripziorako formularioan, baina inola ere ez dira lotesleak izango.
8. Proposamenak honako helbide elektroniko honetara bidal daitezke: programazioa@getxo.eus. Honako hau adierazi behar da mezuaren gain:

Getxoko 2021erako Programazio Proposamenen Deialdia

9. Kultur Etxeko teknikariak arduratuko dira erakundearen programazio irizpideekin bat datozen eta adierazitako espazioetara egokitzen diren proposamenak hautatzeaz. Kultur Etxeko teknikariek beste aditu batzuen txosten dokumentatuetara jo ahal izango dute eta informazio osagarria eskatu ahal izango dute egoki irizten badiote.

10. Kultur Etxeko teknikariek honako irizpide hauen arabera baloratuko dituzte proposamenak:

A. Udalerriarekiko lotura: Erakunde eskatzaileak, proposamenak eta bertako kideek Getxo udalerriarekin duten lotura.

B. Proposamenaren balorazioa:

- Aurkeztutako proposamenaren kalitatea.
- Aurkeztutako proposamenaren interesa, bereziki baloratuta proposatutako gaiaren originaltasuna eta zein hartzaile motari zuzenduta dagoen.
- Erakunde eskatzailearen eta proposameneko partaideen ibilbide profesionala.
- Erakusteko aurrekontuaren egokitzapena eta bideragarritasun teknikoa.
- Euskararen erabilera
- Genero ikuspegia txertatzea

C. Kultur Etxearen programazioan txertatzea

Erakusteko aurrekontua 14.999 eurotik gorakoa (zergarik gabe) duten proposamenak deialdi honetatik kanpo geldituko dira.

11. Aurreikusten da hautatutako proposamenak Kultur etxeak zehaztutako espazioaren baitan erakutsiko direla, Getxoko Kultur Etxearen 2021erako programazioaren baitan kontratatzearen bidez.
12. Hautatutako proposamenen erakunde eskatzaileek zinpeko adierazpena sinatuko dute, honako hau jasoko duena: proposatutako obra edo ikuskizuna jendaurrean erakusteko eta komunikatzeko eskubide guztiak dituztela, proposamenaren zuzendaritza eszenikoaren jatorrizko autoretza (izan argitaragabea edo izan errepresentatua) eta aurkakoa frogatuz gero jasotako zenbatekoak itzultzeko konpromisoa. Horrez gain, Kultur Etxeari laga beharko dizkiote irudiaren, jabetza intelektualaren eta jabetza industrialaren gaineko eskubideak, beharrezkoak direnak Kultur Etxeko egonalditik eta parte-hartzetik eratorritakoak finkatu eta ustiatzeko.
13. Proposamenak aurkezteak ez dakar inolako eskubiderik, eta administrazio hau ez du lotzen inolako kontrataziorik egiteko. Hala, eskaintza edo aurrekontu soila baino ez da.

Hala ere, Kultur Etxearen interesekoa da 100.000 euroko proposamenak kontratatzea, bat etorritako balorazioarekin.
14. Aurkeztutako proposamen guztiek COVID-19arekiko prebentzioaren arloan indarrean dagoen araudia bete beharko dute, eta kontingentzia sanitarioko plana hartu beharko dute barne. Hori ekitaldia baino 30 egun lehenago aurkeztu beharko da, programatua izatekotan.
15. Datuen babesa: Datuak babesteko araudiaren arabera, zure esku jartzen dugu emango dizkiguzun datu pertsonalen tratamenduari buruzko oinarritzko informazioa:

Zure datuak Getxoko Kultur Etxearen (Villamonte A-8, kulturetxea@getxo.eus) ardurapeko "HORNITZAILEAK" tratamenduari gehituko zaizkio. Horren helburua da Kultur Etxeak antolatzen dituen jarduerak kudeatzea. Tratamenduaren oinarri juridikoa baimena eta kontratuaren egikaritzea dira, eta datu horiek arduradunarekin zuzenean lotutako antolakundeei edo zerga administrazioari laga ahal izango zaizkie. Titularrak datuak jasotzeko, zuzentzeko, ezabatzeko edo lekualdatzeko eskubidea du, eta datuak tratatzearen aurka agertzeko idatzizko jakinarazpena bidali beharko du Getxoko Udalera edo datuak@getxo.eus helbide elektronikora (datuak babesteko ordezkaria). Kasu bietan nortasuna egiaztatzeko agiria bidali beharko du. Horretarako eskuragarri dagoen izapide elektronikoa udalaren egoitza elektronikoa ere abiatu daiteke. Informazio gehiago hemen: www.getxo.eus/datos

ERANSKINAK

1. eranskina:

Eskaera eredua

2. eranskina:

Muxikebarriko Ereaga, Arrigunaga eta Areeta aretoen eta RKEko ekitaldien aretoaren fitxa teknikoak